

Bezeroarekiko harremanak:

Aplikazioaren eta erabiltzaileen arteko harremana jarraitua eta pertsonalizatua da. Erabiltzaileek beraien herria edo hiria eta interes kulturalak aukeratu ahal dituzte, eta horren arabera notifikazioak jasotzen dituzte inguruan dauden ekintzei buruz. Horrela, erabiltzaile bakoitzak benetan interesatzen zaizkion proposamenak jasotzen ditu, aplikazioaren erabilera eroso eta eraginkorra bihurtuz.

Horrez gain, premium harpidetzarekin, funtzio berriak eta pertsonalizatuagoak izango ditu harpidetza hau ordaintzen dutenek. Hau da, adibidez, iragarpenik ez ditu ikusiko edo hainbat deskontu izango ditu, zenbaiterako sarrerak erostean.

Horrez gain, bezeroentzako laguntza-zerbitzu bat eskainiko da, aplikazioaren barruan bertan, zalantzak edo arazoak azkar konpontzeko. Komunitate-funtzioak ere harreman garrantzitsua sortzen du, erabiltzaileek beste pertsona batzuekin konektatzeko aukera baitute kultur ekintzetara elkarrekin joateko. Azkenik, erabiltzaileek iritziak eta balorazioak uzteko aukera dute, aplikazioa etengabe hobetzen lagunduz eta erabiltzaileekin konfiantzazko harremana sendotuz.



